

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Sustapen Ministerioak informazio publikora atera ditu prestazio handiko tren-linearen Nafarroako 2. eta 3. tarteak

*Alesbes-Erriberri eta Erriberri-Tafalla ibilbideak dira.*

Lunes, 14 de abril de 2014

Sustapen Ministerioak informazio publikora atera ditu Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako 2. (Alesbes-Erriberri) eta 3. (Erriberri-Tafalla) tarteen proiektuak. Lineak UIC zabalera izango du (nazioarteko zabalera), bidaiariak eta salgaiak garraiatu ahal izateko.

Lehen tarteak, Alesbes-Erriberri, 15,291 kilometro luze da eta Alesbes, Martzilla, Azkoien, Faltzes eta Erriberri herrietatik pasatzen da. Bestea, Erriberri-Tafalla tarteak, 14,676 kilometro luzea da eta bi herri horietatik pasatzen da. 2. tartearen oinarritzko proiektua Adif enpresak (trenbide-azpiegituren administratzailea) onetsi zuen behin-behinean 2012ko otsailaren 13an, eta 3. tartearena 2011ko azaroaren 29an.

Informazio publikoa eginda eta kaltetuko diren ondasun eta eskubideak argitaratuta (Ministerioa da desjabetzailea eta Adif desjabetzeen onuraduna), estatuak ebatzi beharko dituen alegazioak aurkez daitezke. Alegazioak ebazteko ez dago epe zehatzik, baina ebazten direnean, behin betiko onetsiko dira proiektuak eta, ondoren, lizitazioa eta esleipena gauzatuko dira.

Gainerako ibilbideari dagokionez, hau da, Iruña-Castejón, gogorarazi beharrekoa da Castejón-Alesbes 1. tarteak (azpitarteak 1.2. Cadreita-Alesbes, 8,578 kilometro) eta Castejón-Cadreita (6,195 kilometro) 1.1. azpitarteak lanak egiten ari direla. 1.2. tarteak lanak maiatzean amaituko direla aurreikusi da eta 1.1. tartearen % 48 eginda dago. 4. tarteak, Tafalla-Arrizabalaga (15,103 kilometro) prestatzen ari dira, Adif enpresak oinarritzko proiektua onartzeko zain, ondoren informazio publikora ateratzeko. Azkenik, 5. tarteak, Arrizabalaga-Eskirotz (10,792 kilometro), Nafarroako Gobernuak ari da prestatzen.

### Tarteak azalpena

2. tarteak, Alesbes-Erriberri, Kantauritik Mediterraneoarako Abiadura Handiko Trenaren korridoreko Castejón-Iruñerria zatitu ondoren atera diren bost tarteetako bigarrena da. Jarduerak Madril-Zaragoza-Bartzelona-Frantziako muga Abiadura Handiko Linea dute oinarri, eta helburua beharrezko trenbide-azpiegiturak eraikitzea da, abiadura handiko linea hori osatzeko.

Proiektu horretan Abiadura Handiko Linea egiteko ibilbidea zehaztu da, bidaiariak eta salgaiak eraman ditzakeen eta 350 km/h-ko gehienezko abiaduran joan daitezkeen tren-azpiegitura jasan dezakeen plataformak

behar bezalako funtzionatzeko obra guztiak finkatuta.

3. tarteak, Erriberri-Tafalla, Kantauritik Mediterraneorako Abiadura Handiko Trenaren korridoreko Castejón-Iruñerria zatitu ondoren atera diren bost tarteetako hirugarrena da. Jarduerak Madril-Zaragoza-Bartzelona-Frantziako muga Abiadura Handiko Linea dute oinarri, eta helburua beharrezko trenbide-azpiegiturak eraikitzea da, abiadura handiko linea hori osatzeko.

Proiektu horretan Abiadura Handiko Linea egiteko ibilbidea zehaztu da, bidaiariak eta salgaiak eraman ditzakeen eta 350 km/h-ko gehienezko abiaduran joan daitekeen tren-azpiegitura jasan dezakeen plataformak behar bezalako funtzionatzeko obra guztiak finkatuta.

Irtenbidea Informazio Azterlanak hautatutako alternatibak oinarritzen da. Azterlan hori, gerora, egokitu egin zen Ingurumen Eraginaren Adierazpena betetzeko. Ondorioz, IEAren araberrako behin betiko irtenbidea deritzona sortu zen, eta horixe da gaur egungo proiektuan garatu dena.